

ERREFUXIATUEI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO DEKALOGOA

1.- Asilo-eskubidea nazioarteko araudian araututa dagoen giza eskubidea da. Espainiak eta Europar Batasuneko herrialdeek nazioarteko babesa behar duten pertsonak hartzera eta babesa ematera behartzen dituzten hitzarmenak eta itunak sinatu dituzte. Estatuak behartuta daude pertsona horiei laguntzera eta hartzera asiloaren alorrean hartutako nazioarteko konpromisoak betetzeko; beraz, ez da borondate-ekintza altruista. Egoera horren aurrean herritarrek bultzatuta gauzatzen diren ekimen solidarioak eta herritarrek jarduteko duten borondatea ez dituzte aitzakiatzat hartu behar Estatuak beren konpromisoak eta betebeharrak ez betetzeko eta eman behar dituzten baliabideak kentzeko.

2.- Sufrimenduaren eta emozioaren logika humanitarioak ez dezala justiziaren eta eskubideen logika ordeztu. Errefuxiatuek ihes egiten dute indarkeriatik eta jazarpenetik, eta behar bezalako babesa jasotzeko eta harrera duina izateko eskubidea dute. Errefuxiatuen babesa eskubide bat da eta giza eskubideei buruzko nazioarteko eta Europako itunetan azaltzen den betebeharra, ez da opari boluntarioa edo altruista, guztiok eskubideak izateko modu bat baizik. Asilo-eskubidea guztiok daukagun giza eskubide unibertsala da eta ezin da beste eskubide batzuetatik bereizi, hala nola etxebizitza duina, lana, heziketa, osasuna, osotasun fisikoa eta psikikoa izateko eskubideetatik.

3- Migrazio- eta asilo-politiken ikuspegia ez ezik, elkartasunaren oinarria eta Europa eraikitzeko kontuan hartu ziren giza eskubideekiko errespetua ahaztu duela ematen duen Europa indartzea ere zalantzan jartzeko garaia da. Arduradun politikoei beren betebeharrak, hau da, errefuxiatuak hartzeko eta babesteko betebeharrak bete ditzaten eta administrazio publiko eskudunen eta egoera horri baterako irtenbideak bilatzen espezialistak diren gizarte-erakundeen arteko elkarrizketaguneak sor ditzaten eskatzeko garaia da.

4.- Lehendik dagoena hartuko dugu abiapuntutzat eta ez gara zerotik hasiko eraikitzen. Gaur egun bizi dugun larrialdi-egoeraren aurrean, ezinbestekoa da errefuxiatuekin egiten den lana kalterik gabeko jardunaren printzipioan oinarritzea, esperientzian oinarritutako lan koordinatua eginez, duela 30 urte baino gehiago Espainian abian jarri zen harrera-sarearen esperientzian, sare horretan ikasitako irakaspenetan eta jakintza teknikoan oinarrituta, eta une honetako urgentziaren adierazgarri ez dira izango, espero denaren aurka, pertsonen kalteberatasun-egoeran sakontzen duten esku-hartzeak. Garrantzitsua da egun dagoen harrera-sarea indartzea eta gizarte zibila inplika dadin ahalbidetzea; horretarako, ahaleginak elkartu behar dira eta ekintza paraleloak sor daitezen saihestu behar da.

5.- Asistentzialismotik ihes egin behar dugu eta administrazioek, gizarte-erakundeek eta konprometitutako herritarrek baterako erantzunak eman behar ditugu. Erantzun hori laguntza integralaren alde egitera eta errefuxiatuen autonomia sustatzera bideratuta egongo da eta erantzuna koordinatzea ahalbidetzen duten gizarte-ekintzako eredu inklusiboak bilatuko dira.

Harreraren helburua pertsoneri bizitegirako irtenbideak emateaz gain pertsona horiek modu integralean eta espezializatuan artatzea da: laguntza psikologikoko premiak daude, jazarpenetik, indarkeriatik eta jatorrizko lekuan eta/edo ihes egiteko ibilbidean bizi izandako zailtasunetatik eratorritako premiak, alegia. Asiloa eskatzeko prozeduran sartu ahal izateko eta eskubidea onartu arte prozesuaren jarraipena egiteko laguntza juridikoko premiak ere badaude. Gizarteratzeko ibilbide integralak egin behar dira hizkuntza ikasteko, prestatzeko, bizimoduak lortzeko moduak eskuratzeko laguntza emateko beharrezkoak diren tresnak eskura jartzeko. Ezinbestekoa da babestutako pertsonen gizarte-arreta espezializatuko sare bat izatea, eta gai hori ezagututa baterako lan-prozesua sortzea, lekualdatze behartuaren egoerarako irtenbide iraunkorrak lortzera bideratuta dagoena.

6.- Prozesu horrekin batera ikuskapen-lana egin behar da, baita Espainiak eta Europar Batasunak errefuxiatuekin dituzten betebeharrak betetzen ote diren ikusteko jarraipen-lana ere, eta horri esker, aurrera egin ahal izango da Asilo Eskubidearen defentsan, nazioarteko, Europako eta estatuko araudiaren inguruko ez-betetzeak salatuz.

7.- Ezin dugu ahaztu munduko lekualdatze behartua zer den eta haren jatorria eta kausak, dimentsioa eta tresnak zein diren ulertu behar dela eta hartaz jabetu behar dela nazioarteko babesa bilatzen ari diren pertsoneri laguntzeko, biktimizazioan eta ihesaldiak eta jazarpenak eragindako minean sakondu gabe. Harrera-sistema integral batek gai horri buruz sensibilizatzearen alorreko lan-ardatz bat izan behar du, herritarrei orokorrean ez ezik, errefuxiatuekin lan egiten duten funtsezko gainerako agenteei, hots, gizarte-zerbitzuetako funtzionarioei eta langile publikoei, osasun-alorreko, hezkuntza-alorreko, justizia-alorreko eta lan-arloko langileei ere bideratuta dagoena.

8.- Ezinbestekoa da bideak antolatzea herritarrek modu antolatuan eta koordinatuan parte hartzeko, errefuxiatuen duintasuna, ongizatea eta autonomia ziurtatuko duen lan-metodologia bermatuz. Parte hartzeko, atzeraelikatze eta laguntzeko mekanismoak gehitu behar dira, eta mekanismo horiek, aldi berean, saihestuko dute herritarren artean adorerik eza eta etsipena sortzea pertsona horien egoerari erantzun solidarioa emateko nahia bideratu ezin dutelako.

9.- Elkartasun-adierazpenak errefuxiatuei laguntzera eta pertsona horiek eguneroko gizarte-bizitzan sartzeko prozesuetan laguntzera bideratu behar dira, hurbileko elkartasuna ematea izanik helburu: baliabideak lor ditzaten laguntzea baliabide horiek ezagutzeko eta baliabide horietan nola jardun behar den jakiteko, pertsonen artean harremana izateko sareak, aisiaguneak eta bizikidetzaguneak, berdinaren arteko harrera eskolan, eta abar; betiere honako premisa hau abiapuntutzat hartuta: elkartasuna ez da karitate-ekintza bat gizarte-eraldaketako ekintza bat baizik. Oinarrizko premia materialak (etxebizitza, janaria...) puntualki estaltzeaz gain, errefuxiatuen autonomia bultzatuko duten prozesuak jarriko dira abian, pertsona horiek beren prozesuaren partaide eta protagonista direla.

10.- Errefuxiatuen eta migratzaileen elkarteak eta sareak daude, nazioarteko babesa bilatzen ari diren pertsonak indartzeko eta ahalduntzeko balio izan dutenak. Elkarre horiekiko lankidetzak, elkarri laguntzeko sareak, asoziazionismoaren sustapena eta hartutako pertsonen

ahalduntzea izango da eredu asistentzialistagoak ere gaitzeko eta eskubideak leheneratzeko ikuspegitik lan egiteko lan-ildoetako bat.

(R) EUSKADI